

# NAFARROAKO LURRALDE ESTRATEGIA BERRIKUSTEA.

## PARTE HARTZEKO PROZESUA.

NLE-REN ZIRRIBORROAREN AURKEZPENA

Lizarreriko Lurralde mahaia

Lekua: Jurramendiko Mankomunitatea, Lizarra.

Eguna: maiatzaren 26a

Ordua: 18:00-20:00

### SAIOAREN EGITURA

---

- 1.- Hasiera eta ongietorria.
- 2.- Parte hartzeko prozesuaren azalpena.
- 3.- NLEren zirriborria aurkeztea.
- 4.- Galderak eta ekarpenak.

Lizarreriko lurralde mahaiaren helburua Nafarroako Lurralde Estrategiaren zirriborria aurkeztea eta horri buruzko galderak eta ekarpenak jasotzea zen.

Garrantzitsua da adieraztea zirriborriaren inguruko parte-hartze prozesu hau prozesu osoaren fase bat dela, eta informatzeko eta parte hartzeko beste une batzuk ere daudela. Fase honetan, zirriborria da xedea, eta jasotzen diren ekarpenetan oinarrituta aldaketa ezberdinak jasan ditzake.

Garrantzitsua da adieraztea fase honetan parte hartzeko aldia ekainaren 25era arte luzatu zela, NLEren berrikuspenean parte hartzeko webgunearen bidez (<https://participa.navarra.es/processes/revision-estrategia-territorial-navarra?locale=eu>). Webgune horretan, beharrezko dokumentazioa deskarga daiteke (NLEren zirriborria eta laburpen exekutiboa) eta beharrezkotzat jotzen diren ekarpenak egin daitezke.

Jarraian, NLEren zirriborroa aurkeztu ondoren bilkuran egindako ekarpen nagusien laburpena azalduko da. Parte-hartzaileei animatu zitzaien beren ekarpenak idatziz web-orriaren bidez bidaltzera, behar bezala kontuan har daitezten.

## GALDERA ETA EKARPEN NAGUSIAK

Jarraian, saioan egindako galdera eta ekarpen nagusien laburpena azalduko da. Ez dira ipini pertsonen izenak, pribatutasuna babesteko arrazoiengatik.

- Adierazi da NLEk ez duela zentzurik industriarik gabe. Kezka handia dago Iruñeko satellite izateagatik, biztanleria eta dinamismoa galtzen ari baita. Industriaren aldeko apustu handiagoa egiteko beharra azpimarratu da, lehen Lizarran egon zena eta orain Iruñera joan dena. Azkenean, lana eskualde guztien artean banatu behar da, hiriburuaren satellite hutsak ez izateko.
- Positibotzat jo da estrategia hauetan despopulazioaz hitz egiten hasi izana, baina ez da ezer aurreratzen ari. Herri txikiek dena egin behar dute, eta arrakala ezabatzeko gauzak egin nahi badira, ez dago langilerik. Udalerri handiak balira bezala tratatzen badira, une batean ezin da ezer egin proiektuak garatu ahal izateko oztopo asko aurkitzeagatik. Premiazkoa da laguntza eta lankidetzak, herritarrek bertan geratu nahi dutelako.
- Esan da eremu tekniko eta politikotik, Nafarroa goitik ikusten dela, eta ratioetan oinarritutako kudeaketa bat dagoela, udalerri txikiak errentagarriak ez direla pentsaraz dezakeena. Jendeak landan geratu nahi du, baina leku horiek bizirik irauteko zer behar den jakiteko hausnarketa bat egin behar da; gainera, ingurumen-, paisaia- eta natura-baliabideen aktiboak dituzte, baina, aldi berean, lehen sektorean soilik bizi ezin diren lekuak dira.
- Kezka handia azaldu da landa-udalerrien egoeragatik; oso arazo larria da, eta zentzu guztietan landu behar da. Jendea gera dadin,

ezinbestekoa da mediku bat astean behin eramatea edo bertan egotea. Baina, oro har, badirudi inork konponbiderik ez duela.

- Konpentsazioen gaia garapen-aukera bat izan daitekeela adierazi da. Ekonomia ekologikoago baten barruan, abeltzaintza estentsiboagoarekin, gaur egungo merkatuko prezioekin ezin izango da bizirik iraun. Baina konpentsazio-faktore bat sartzen bada, mendiak garbitzeagatik suteak saihesten dituen abeltzain bat badago, planteatu beharko litzateke diru hori gobernutik zuzenean joatea ingurumen-onura horiek sortzen ari diren lehen sektoreko pertsonengana. Alde horretatik, konpentsazioa premiazkoa da jendea joan ez dadin.
- Bestalde, planteatu da administrazioak deszentralizatzearen aldeko apustua, ehunka pertsonari lana ematen diete eta. Eta, aldi berean, beharrezkotzat jo da landa-eremuetarako bigarren leihatila bat irekitzea.
- Landa eremu batean ezarri nahi diren pertsoneri lagundu behar zaiela iradoki da, ezartzeko laguntza zuzenak emanaz. Jaiotza-tasa sustatzeari dagokionez, laguntzak behar dira lan egiten duten eta seme-alabak dituzten pertsonentzat, landa-eremuetan gera daitezen.

Ekarpenen zatia amaitu ondoren, Erredakzio Taldeak azpimarratu du garrantzitsua dela ekarpenak bidaltzea, nahi den zentzuan eta norainokoa, adierazitako webgunearen bidez eta ekainaren 25era arteko epearekin. Unea garrantzitsua da, zirriborroa aldatzeko eta aberasteko modukoa delako.